



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 11

27. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duena. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, etxegabetzeen dramaren aurrean Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek egin (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du pertsona etorkinekiko elkartzuna oztopenen duen neurri oro arbuiazen duela. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azterlanak edo inkestak egin ditzan, 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik eman diren errezeten eta errezetak jaso ez dituzten erabiltzaileen gaineko datuak lortzeko. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da baliogabetu edo deusezta dezan toki entitatek eta partikularrek sustatutako baso jardueretarako laguntzak emateko 2013-2014 urteetarako deialdia eten duen ebazpen edo erabakia. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prestakuntzarako funtsen kudeaketa hobetu dezan. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du, Moderna Planari eta Moderna Fundazioari buruzko erabaki proposamenak eztabaidatu eta proposatzeko Osoko Bilkura berezi eta monografiko bat egitekoa. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, jakitekoa nola justifikatzen duen Nafarroako Gobernuak parlamentu-taldeei galaraztea aurrekontuei izaera sozialeko zuzenketak proposatzea Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorera bideratutako kontusailen kargura, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakitekoa Gobernuak irizpidea aldatu eta beteko ote duen Osoko Bilkurak zirkulatzaileren abal-lerroari buruz onetsitako proposamena, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zein epetan jarriko dituen abian osasun arloko aldaketak, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eta nola hasiko dituen EAE-Akitania Euroerregioan Nafarroa sartzeko elkarrizketak, Nafarroa Europako erakundeek sustatzen duten Europa polizentrikoan kokatze aldera, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eta nola sendotuko dituen Akitania eta EAerekiko bitariko harremanak, onura komuna oinarri duten proiektuak garatze aldera, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (15. or.).
- Galdera, enplegu egonkorra sortu eta egun dauden azpiegiturak optimizatuko dituzten balizko enpresa-ekimenei buruzko txostena amaitzeko epeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Julián Gayarre Kantu Lehiaketa bertan behera gelditzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorearen eraikuntzari loturiko 2012ko kontusailei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenera bideratutako 2012ko kontusailari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Foru Administrazioako goi karguen ordainsarien antzintasun sariaren gaineko galderaren erantzuneko 1. eta 2. ataletan aipatu zenbatekoen arteko kontraesanari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko apirilaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu

foru lege proiektua 2012ko azaroaren 9ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana Beltrán Villalba andreak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

**3.** Foru lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 130. artikulua aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 157. artikuluan ezartzen du Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua jaso ondoren Kontuen Ganberari igorriko diola Mahaiak bere lehendakariaren bitartez, horiek ikertu eta azter ditzan.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak xedatzen du Nafarroako Gobernuak onetsiko duela Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua, eta urtean urteko irailaren 15a baino lehen Nafarroako Parlamentura igorriko duela.

Kontuen Ganberak gomendatzen du, 2011ko kontu orokorrei buruz egindako txostenean, Gobernuak aurreratu egin beharko lukeela araudiak aurreikusten duen data Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Parlamentura igortzeko, irailaren 15a, "kontuan hartuta eskueran dituen baliabide teknikoak eta itxitako ekitaldiaren finantza-informazioa ahalik eta lasterren lortzeko beharra". Gure ustez, eta kontuan hartuta enpresen eta fundazioen sektore publikoaren lege-baldintzapenak, ekaina izan liteke horretarako une aproposa.

**Artikulu bakarra.**

"130. artikulua

1. Nafarroako Parlamentuari dagokio Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onestea, foru lege baten bidez.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren ondorioetarako, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposaturik, kasuan kasuko foru lege proiektua onetsi eta urtean urteko ekainaren 15a baino lehen igorriko du Nafarroako Parlamentura".

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, etxegabetzeen dramaren aurrean Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko jabeldura, etxegabetzeen dramaren aurrean Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **JABELDURAREN TESTUA**

Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García foru parlamentari atxikigabeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu diote Nafarroako Gobernuko Sustapen eta Etxebizitzako kontseilari Zarraluqui jaunari.

Jabeldura, etxegabetzeen dramaren aurrean Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa.

Etxegabetzeen arazoa herritarren kezkarik handienetako bat bihurtu da, bai gertatutako etxegabetze kopuruarengatik, bai pertsonen bizitzari dagokionez dituen ondorio dramatikoenengatik, krisi ekonomikoaren eta horri loturiko langabezia handiaren ondorio zuzena baita neurri handi batean.

Langabeziak orain arte seguru sentitzen zen jende askori eragin dion bezala, etxebizitzaren galerak, edo etxebizitza galtzeko arriskuak, herritarren parte handi baten ziurgabetasun sentsazioa areagotu du, halaber, errealitatea are gehiago larriagotzen duen pesimismo giroa oraindik ere gehiago astunduz.

Jakin badakigu arlo horretako legegintza-eskumena Madrilen esku dagoela, baina, gure ustez, herritarrei zuzenean eragiten dien arazo bat denez gero, Nafarroako Gobernuak ere politika orokor bat eduki behar du arlo horretan, eta bere esku dituen tresna guztiak jarri behar ditu arazoa konpontzeko.

Hori da jabeldura honen helburua: jakitea zein den Nafarroako Gobernuaren politika orokorra etxegabetzeen arazoaren aurrean eta zein diren arlo horretan jarduteko ildo estrategikoak.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du pertsona etorkinekiko elkartasuna oztopatzen duen neurri oro arbuiatzen duela.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu pertsona etorkinekiko elkartasuna oztopatzen duen neurri oro arbuiatzen duela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, "Abegitsua izatea ez da delitua" kanpainari babesa emateko mozio hau aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Erakunde publikoek ahalegin handia egin dute azken urteotan, Nafarroan bizi diren atzerritarren erabateko gizarteratzea sustatzeko, gizarteko elkarbizitza hobetzeko helburuarekin. Ahalegin horiek, gainera, herritarren inplikazio handiaren eskutik joan dira, gizarte entitateen, elkarrean eta, orobat, herritarren elkartasunaren eta babesaren bitartez.

Azken asteotan, nolabaiteko kezka sortu da egoera irregularrean dauden pertsonen artean, bai eta horiekin zeinahi lotura duten pertsona eta entitate sozialen artean ere, jakin ostean Justizia Ministerioak aurkeztutako Zigor Kodearen erreforma aurreproiektuak proposatzen duela 318 bis artikulua idazketa berri bat, zeinean nahasi egiten diren pertsonen trafikoa bezalako delitujokabideak eta egoera irregularrean dauden pertsonen arrazoi humanitario, solidario eta abarretan oinarrituta babesa eta laguntza emateko jokabideak, halako moduan non errakuntza edo interpretazio kezkarriak gerta baitaitezke. Hedabide gehienek jaso dituzte gisa honetako albisteak:

"Egoera irregularrean dauden etorkinei laguntzea espetxeratzearekin zigor liteke"

Halatan, testu horretan hiru hilabetetik hamabi hilabetera bitarteko isun bat jasotzen da, edo sei hilabetetik bi urtera bitarteko espetxe-zigorra, atzerritar bati pasatzen laguntzen dionarentzat. Araudiak orobat gisa horretako zigorrak aurreikusiten ditu egoera irregularrean dauden etorkinei erki-degoko lurraldean "egoten" irabazi asmoz laguntzen dietenentzat.

Hala ere, 318 bis artikulua entzat proposatutako zorigaitzoko testuak ziurgabetasun handia eragin du gizartean, hainbestearino non gizarteak uste baitu zigortu daitezkeela, adibidez, egoera irregularrean dauden atzerritarrei logela bat alokatzeko dietenak edo menu bat ematen dietenak. Izan ere, artikulua egileak berak, arautu nahi diren jokabideen arteko desberdintasun izugarriez jabetuta, babestu nahi izan ditu, gutxienez ere, egoera irregularrean dauden etorkinekiko elkartasuna eta abegikortasuna, esaten baitu " Fiskaltzak uko egin ahalko diola delitu hori leporatzeari, baldin eta lortu nahi den helburua bakarrik bada laguntza humanitaria ematea"

Hartara, arestian emandako arrazoiengatik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, aginduz egin beharrekoa duen txostenean, zehaztasun handiagoa eskatu zuen, proposatutako arau berriari begira.

Bestalde, erreforma hau aurkeztu den bezala onesten baldin bada, ezerezean geldituko dira erakunde publikoek gizarteko elkarbizitzaren alde egindako ahalegin handiak. Arau berri honekin gertatuko litzateke, orobat, Nafarroako zenbait udaletako gizarte zerbitzuek egindako ekintzak eta jarduerak delitu izan litezkeela.

Azkenik, gogoratu beharko litzateke Zigor Kodearen edozein erreforma bete beharko lukeela gutxieneko esku-hartzearen printzipio juridikoa; alegia, soilik jokabide larriak eta oinarritzko ondatsun juridikoen aurkakoak jarri behar dira zigorzuzenbidearen babespean eta, horrenbestez, pertsona ahulenekiko elkartasuna zigortzen duen ambiguitasun oro kendu beharko litzaiokete testuari.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Pertsona etorkinekiko elkartasunari traba egiten dion neurri ororen aurka azaltzea, eta erabaki hau Gobernu zentralari helaraztea.

2. Gobernu zentrala premiatzea herritar atzerriarren eskubideen aurkako delituak, zeina Zigor Kodearen erreforma aurreproiektuko 318 bis artikuluan jasotzen baita, soilik zigortu ditzan pertsonen trafikoarekin lotutako jokabideak, espresuki

salbuetsita laguntza humanitarioa eta solidarioaren ondoriozkoak.

3. Adieraztea gizarteko elkarbizitza sustatzen jarraitzeko asmoa duela, zein ere den gure erkidegoan bizi diren pertsonen nazionalitatea edo egoera administratiboa.

Iruñean, 2013ko otsailaren 27an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azterlanak edo inkestak egin ditzan, 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik eman diren errezeten eta errezetak jaso ez dituzten erabiltzaileen gaineko datuak lortzeko.**

### *BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita azterlanak edo inkestak egin ditzan, 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik eman diren errezeten eta errezetak jaso ez dituzten erabiltzaileen gaineko datuak lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nabai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretua onestean, presako zenbait neurri ezarri ziren "Osasun Sistema Nazionalaren jasagarritasuna ziurtatze aldera"; besteak beste, zenbait medikamentu desfinantzatzea eta farmakoen koordainketa formula

berri bat, are gehiago kargatzen zuena herritarren poltsikoa; bereziki, pentsiodunena.

Herritarren eskubideen aurkako eraso berri honen aurrean, Parlamentuaren gehiengoak, iragan urriaren 11n, onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko urriaren 19ko 1/2012 Foru Legea, aipatu koordainketa birformulatzen zuena. Argitaratu zenetik iragandako denbora gorabehera, Nafarroako Gobernuak ez du aplikatu aipatu legea, eta zain egon da Estatuak konstituziokontarakotasuneko errekurtsioa jarri arte, zeina, azkenean, 2013ko otsail honetan aurkeztu baitu. Hortaz, Nafarroan indarrean dago, 2012ko uztailaz geroztik, 16/2012 Errege Dekretuan ezarritako koordainketa.

Orain dela gutxi ezagutu dugu Osasun Publikoaren aldeko Elkartek Madrileko osasun etxetan egindako inkesta bat, datu oso kezagarriak ematen dituena. Horien artean, agerian gelditzen da pentsiodunen % 16,8k ez dituela bere errezetak erretiratzen, Errege Dekretuan araututako koordainketa eta medikamentuen desfinantzaketa indarrean sartu zirenez geroztik.

Elkarte horren arabera, azterlanak erakusten du koordainketak espero zen eragina izan duela pentsiodunengan eta pobreenak kaltetu dituela. Egindako inkestaren ondorioa da kontsumitu gabeko errezetak eta koordainketa direla "erreze-tengatikoa" gastua murriztu izanaren arrazoi nagusia, estatistika ofizialek agerian jarri dutenez. Sortzen zaigun zalantza da, hortaz, ea gastua egiaz murriztu den, ala pentsiodunen poltsikora iragan den.

Kezka hori bera erakutsi du, baita Nafarroan ere, "Pentsionistak Martxan" pentsiodunen kolektiboak, zeinak Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuekin eta farmazialariek lankidetzan egindako azterlan bat aurkeztu baitu orain dela gutxi, neurri horien inpaktuari buruz. Azterlan horretan ohartarazten da osasun arloko langileak hasiak direla detektatzen arrazoi ekonomikoengatik tratamendua jarraitzeari utzitako pertsona nagusiak.

Gainera, eta hemen datza arauaren alderdirik kezkgarriena, aztertzeke dago errezetatutako medikamentuak ez erabiltzeak osasunean izandako eragina; izan ere, litekeena da tratamenduak bertan behera uztean gaixotasunek okerrera egitea edo, are, heriotza-tasa epe ertainera eta epe luzera igotzea.

Argi dagoena da koordainketak diru-bilketa duela helburu nagusi, eta ematen du administrazioek alegatutako disuasio-efektuak errenta txikiagoko pertsonengan soilik daukela eragina, haien osasunaren kaltetan.

Horregatik guztiagatik, bi parlamentu-talde hauek ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko azterlanak edo inkestak egin ditzan, halako moldez non hilabete-ko epean jakinen baita zenbat errezeta gelditu diren erretiratu gabe apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik, bai eta errezetak erretiratzeari utzitako erabiltzaileen portzentajea ere, errenta txikieneko pertsonen eta pentsiodunen portzentaje zehatza ere zehaztuta.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Gobernuak izandako jarrera, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2012ko urriaren 11n onetsitako urriaren 19ko 18/2012 Foru Legea dela-eta, ez baitu ez indarrean jarri, ez aplikatu ere, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du eskueran dituen baliabide guztiekin defenda dezan Parlamentu honek onetsitako legea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Asun Fernández de Garaialde

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu edo deusezta dezan toki entitateek eta partikularrek sustatutako baso jardueretarako laguntzak emateko 2013-2014 urteetarako deialdia eten duen ebazpen edo erabakia.**

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita baliogabetu edo deusezta dezan toki entitateek eta partikularrek sustatutako baso jardueretarako

laguntzak emateko 2013-2014 urteetarako deialdia eten duen ebazpen edo erabakia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dugu:

Modu “ez ofizialean” jakin dugu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuko arduradunek erabaki dutela “Toki entitateek eta partikularrek sustatutako baso jardueretarako laguntzak emateko 2013-2014 urteetarako deialdia” bertan behera uztea eta 2012-2013 kanpainako espediente gehienak atzera botatzea –zeinak emanda baitzeuden eta, are, lan batzuk eginak baitzituzten–. Horri gehitu behar zaio azken urteetan horretarako zeuden kontusailak drastikoki murriztu direla –% 82raino– eta murriztu edo desagertu egin direla beste kontusail batzuk, herri-mendiak antolatzea, basoetan inbertsio zuzenak egitera, abeltzaintzako azpiegiturak hobetzera, ibilguak egokitzera edo hobetzera eta abar bideratuak. Hori dela-eta, Nafarroako Basogintza Taldea (Comfornaf) izenekoa eratu da, laguntza-lerro horien iraupena eta bideragarritasuna lortzeko xedez; izan ere, ingurunearen hobekuntza nabarmen eta ukiezina ekartzeaz gain, ziurtatu egiten du, prezio oso txikian, toki enplegua (350 langilera bitarte modu zuzenean) eremu oro har txirotuetan eta mendi-eremuetan, alternatibarik bat ere gabekoetan eta Feader funtsek neurri handi batean kofinantzatutakoetan, Nekazaritzako Politika Komuna estrategikotzat jotakoetan. Horregatik guztiagatik eta “Comfornaf” izeneko batzorde horrek eskatuta, parlamentu-taldeok ondoko eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari:

1. Toki Administrazio, Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuak atzera bota edo deusezta dezan “Toki entitateek eta partikularrek sustatutako baso jardueretarako laguntzak emateko 2013-2014 urteetarako deialdia” eten duen ebazpen edo erabakia, halako moduan non deialdiak irekita jarraituko baitu eta toki entitateek eta partikularrek jarraitu ahal izanen baitute aurreikusitako baso-lanekin.

2. Era berean, atzera bota dezan 2012-2013 kanpainako espediente gehienak (% 30 eta % 60 bitarte, kasua zein den) kontusailik gabe uzten dituen erabakia edo ebazpena, baita egindako lanak badira ere.

3. Toki Administrazio, Ingurumen eta Landa Garapen Departamentuari, edo kasuan kasuko atalari, behar adinako kontusaila esleitzen diezaion, mozio honetako 1. eta 2. puntuetan adierazitako lerroei dagokionez, 2012-2013 eta 2013-2014 kanpainetako espedientei eta aurreko kanpainetatik heldu diren atzerapenei aurre egiteko.

4. Laguntza-lerro estrategiko horien jarraitutasuna behar adina funtsekin berma dezan, horien egonkortasuna eta bideragarritasuna ziurtatzeko, kanpaina defizitarioak egotea ekiditeko, orain arte ez bezala, egungo egoera hortik heldu baita, kontuan hartuta kostu oso txikiarekin onura komuna ekartzen dutela, etorkizuneko Nekazaritza Politika Komunaren indarraldia bukatu arte (2020).

5. Hasierako azalpenean aipatutako gainontzeko ekimenetan (herri-mendiak antolatzea, basoetan inbertsio zuzenak egitea, abeltzaintzako azpiegiturak hobetzea, ibilguak egokitzea edo hobetzea...) aurrekontu-zuzkidurek izandako bilakaera justifikatu eta azter dadin, eta bilakaera hori zuzentzea, arestian aipatutakoa oinarri.

6. Eragile nagusiek legitimatutako ordezkariak aukera eman diezaien erabakiak hartzeko prozesuetan esku hartzeko, bai eta sektore-estrategiak taxutzean zuzenean parte hartzeko ahalmena ere, kasuko informazioa emanez muntako erabakiei dagokionez; esaterako, finantzaketa-lerro estrategikoak eteteari dagokionez.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Víctor Rubio Martínez, Xabier Lasa Gorraiz, Marisa de Simón Caballero, Patxi Leuza García eta Manu Ayerdi Olaizola

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prestakuntzarako funtsen kudeaketa hobetu dezan.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prestakuntzarako funtsen kudeaketa hobetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak eta Patxi Leuza García, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, prestakuntzarako funtsen kudeaketa hobetzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu dute, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kontuen Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko txosten bat argitaratu zuen 2012ko azaroan. Txostena bereziki polemikoa gertatu zen, disgustu handia ekarri zien UGTri eta CCOOri, eta haiek Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordearen lan bilera batean agerraldia egitea ekarri zuen.

Jakina da taldeen artean sakoneko desadostasun politikoa dagoela, alde batean baitaude prestakuntzarako funtsak Administrazioaren, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren, UGTren eta CCOOren artean kudeatzeko egungo ereduaren alde daudenak eta beste alde batean, berriz, eredu hori sakonki berrikustearen alde gaudenak baikaude.

Mozio honen asmoa ez da sakoneko eztabaidan sartzea, baizik eta, behinik behin, egungo eredu hobetzen laguntzea, Kontuen Ganberak eginiko gomendioetan oinarrituta. Arrazoizkoa da pentsatzea denoi interesatzen zaigula –bai egungo eredu babesten dutenei, bai aldatu beharko

litzatekeela uste dugunoi– gaur egungo eredu gutxienez ere hobetzea.

Ikuspegi horretatik, mozioak hiru auzitan jartzen du azpimarra. Lehena, langabeziarako eta enplegurako prestakuntza programetan egindako gastuak justifikatzeko hautatutako metodoa; bigarrena, entitate berriek langabeziarako prestakuntza programaren esparruan prestakuntza ekintzetan parte hartu ahal izateko zailtasunak; eta hirugarrena, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa, UGT eta CCOO egotea erabakiak hartzeko ardura duten organo exekutiboetan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, batik batik langile okupatuei zuzendutako lanbide prestakuntzako programaren esparruan egindako gastuen justifikazioa, zeina Enplegu Prestakuntzarako Hiru Aldeko Fundazioaren aplikazio informatikoa erabiliz egiten baita gaur egun, egin dadin batik batik langabetuei zuzendutako lanbide prestakuntzako programari atxikitako gastuen justifikazioan erabilitako sistema erabiliz; alegia, laguntza teknikoko kasuko lehiaketaren bidez kontratatutako kanpo auditore baten bitartez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, Kontuen Ganberak egindako gomendioei jarraikiz alda daitezkeen batik batik langabetuei zuzendutako lanbide prestakuntzako programako deialdietako baremoak, halako moduan non entitate berriek sartzeko dituzten muga handiak nabarmen jaitsiko baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, Kontuen Ganberak egindako gomendioei jarraikiz alda dadin Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, UGTk eta CCOOk organo exekutiboetan duten presentzia, halako moduan non beren presentzia deliberazio edo kontsulta organoetara mugatuko den edo, bestela, organo exekutibo izaten jarraituz gero, beren botoaren ponderazioa murriztuko den, desadostasun kasuetan Gobernuak bere kasa hartu ahal izan ditzan erabakiak.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du, Moderna Planari eta Moderna Fundazioari buruzko erabaki proposamenak eztabaidatu eta proposatzeko Osoko Bilkura berezi eta monografiko bat egitekoa.**

*BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du, Moderna Planari eta Moderna Fundazioari buruzko erabaki proposamenak eztabaidatu eta proposatzeko Osoko Bilkura berezi eta monografiko bat egitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, otsailaren 28ko Osoko Bilkuran eztabaidatutako jabelduratik heldua, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Idazki hau martxoaren 4ko Mahaian eta Eledunen Batzarrean azter dadila eskatzen da.

Izandako eztabaidaren ondorioz, eta eztabaida horretan Gobernuak berak ere egindako iradokizunei jarraikiz, Moderna Planari eta hortik eratorritako Moderna Fundazioari buruzko eztabaida bat egitearen egokitasunari dagokionez, parlamentutalde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak bere borondatea eta adostasuna adierazten ditu Moderna Planari eta Moderna Fundazioari buruzko erabaki proposamenak eztabaidatu eta proposatzeko Osoko Bilkura berezi eta monografiko bat egiteari dagokionez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 1ean

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

---

F saila:  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakitekoa nola justifikatzen duen Nafarroako Gobernuak parlamentu-taldeei galaraztea aurrekontuei izaera sozialeko zuzenketak proposatzea Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorera bideratutako kontusailen kargura.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa nola justifikatzen duen Nafarroako Gobernuak parlamentu-taldeei galaraztea aurrekontuei izaera sozialeko zuzenketak proposatzea Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorera bideratutako kontusailen kargura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nola justifikatzen du orain Nafarroako Gobernuak parlamentu-taldeei galarazi izana aurrekontuei izaera sozialeko zuzenketak proposatzea Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorera bideratutako kontusailen kargura?

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, jakitekoa Gobernuak irizpidea aldatu eta beteko ote duen Osoko Bilkurak zirkulatzaileraren abal-lerroari buruz onetsitako proposamena.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Gobernuak irizpidea aldatu eta beteko ote duen Osoko Bilkurak zirkulatzaileraren abal-lerroari buruz onetsitako proposamena.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean ahoz erantzuteko:

Enpleguari buruz berrikitan egindako Osoko Bilkura monografikoan onetsi zen, besteak beste, atxiki gabeko foru parlamentariak aurkeztutako ondoko erabaki proposamena:

- “150 milioi eurora bitarte igotzea enpresa txiki eta ertainentzako zirkulatzaileraren abal-lerroarako erabilgarritasun-muga”

Bestalde, Osoko Bilkura horren bezperan, kontseilariak berak Ekonomia eta Ogasun Batzordean iragarri zuen zirkulatzailerako abal-lerroa bertan behera uztea, 2012an formalizatutako operazio-kopuru txikiari erreparatuta.

Hona galdera:

Parlamentuak onetsitako erabaki proposamena ikusita, Gobernuak irizpidea aldatu eta, hartara, Osoko Bilkurak onetsitako proposamena beteko al du? Zein epetan uste du egokitu daitekeela erabakia eta izan daitekeela eraginkorra?

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zein epetan jarriko dituen abian osasun arloko aldaketak.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zein epetan jarriko dituen abian osasun arloko aldaketak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Enpleguari buruz berrikitan egindako Osoko Bilkura monografikoan onetsi zen, besteak beste, atxiki gabeko foru parlamentariak aurkeztutako ondoko erabaki proposamena:

- “Osasun arloan egin beharreko lege-aldaketak prestatzea, Europako erreferentziatzko erregioen baldintza beretan egon gaitezen produktu berekiak ekoitzi eta merkaturatzeko orduan.”

Hona galdera: Nafarroako Gobernuak zein epetan aurkeztuko ditu aipatu lege-aldaketak?

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

---

**Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eta nola hasiko dituen EAE-Akitania Euroerregioan Nafarroa sartzeko elkarrizketak, Nafarroa Europako erakundeek sustatzen duten Europa polizentrikoan kokatze aldera.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eta nola hasiko dituen EAE-Akitania Euroerregioan Nafarroa sartzeko elkarrizketak, Nafarroa Europako erakundeek sustatzen duten Europa polizentrikoan kokatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzuteko:

Enpleguari buruz berrikitan egindako Osoko Bilkura monografikoan onetsi zen, besteak beste, atxiki gabeko foru parlamentariak aurkeztutako ondoko erabaki proposamena:

- “Elkarrizketak hastea Nafarroa EAE-Akitania Euroerregioan sartzeko, Europako erakundeetatik sustatzen ari den Europa Polizentrikoan koka dadin Nafarroa.”

Hona galdera: Gobernuak noiz eta nola beteko du Parlamentuaren gehiengoak onetsitako aipatu erabakia?

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eta nola sendotuko dituen Akitalia eta EAerekiko bitariko harremanak, onura komuna oinarri duten proiektuak garatze aldera.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eta nola sendotuko dituen Akitalia eta EAerekiko bitariko harremanak, onura komuna oinarri duten proiektuak garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzuteko:

Enpleguari buruz berrikitan egindako Osoko Bilkura monografikoan onetsi zen, besteak beste, atxiki gabeko foru parlamentariak aurkeztutako ondoko erabaki proposamena:

- “Betiere, Akitaniarekiko eta EAerekiko aldebi-ko harremanak bultzatzea, onura komunetik abiatuta proiektuak garatzeko, gainontzeko erkidego mugakideekiko harremanak alde batera utzi gabe”

Hona galdera: Gobernuak noiz eta nola beteko du Parlamentuaren gehiengoak onetsitako aipatu erabakia?

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, enplegu egonkorra sortu eta egun dauden azpiegiturak optimizatuko dituzten balizko enpresa-ekimenei buruzko txostena amaitzeko epeari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, enplegu egonkorra sortu eta egun dauden azpiegiturak optimizatuko dituzten balizko enpresa-ekimenei buruzko txostena amaitzeko epeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-rritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Enpleguari buruz berrikitan egindako Osoko Bilkura monografikoan onetsi zen, besteak beste, atxiki gabeko foru parlamentariak aurkeztutako ondoko erabaki proposamena:

- “INTIAk azterlan bat egitea, enplegu egonkorra sortzeko enpresa-ekimenak, dauden azpiegiturak optimizatuko dituztenak, planteatuko dituenak. Ekimen pribaturik ezean, Nafarroako Gobernuak lidergoa hartzea, bideragarritasun ekonomikoari

eta finantza- nahiz merkatariza-bideragarritasunari buruzko azterlanak gainditu dituzten proiektuak abian jartzeari dagokionez”

Hona galdera: Nafarroako Gobernuak zein epetan edukiko du bukatuta aipatu txostena?

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Julián Gayarre Kantu Lehiaketa bertan behera gelditzeari buruzkoa.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Julián Gayarre Kantu Lehiaketa bertan behera gelditzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Galdera hau martxoaren 4ko Mahaian eta Eledunen Batzarrean azter dadila eskatzen da.

Zioen azalpena

Julián Gayarre Kantu Lehiaketa 1986an sortu zen, gure musikari ospetsuenetako baten memoria ohoratzeko eta sortzen diren gazte baliotsuen sustapenari eta aintzatespenari laguntzeko, nafarrak, nazionalak nahiz nazioartekoak izan. Hasieran, José Carreras tenoreak babestu zuen, lehiaketaren lehen etapan ohorezko lehendakaria izan baitzen.

2006tik aitzina, Teresa Berganza mezzosopranoak ordeztu zuen lehendakaritzan, eta gaur arte 13 lehiaketa egin dira.

Programazioari dagokionez, txandak egiten ziren lehiaketa honen eta Pablo Sarasate Nazioarteko Lehiaketaren artean, zeinak, lehiaketa honen antzera, gure biolinista unibertsalenaren memoria ohoratzen baitzuen.

Nazioarteko lehiaketa ororen berezko zailtasunak gorabehera –sustrai eta aurrekontu handiagoko beste batzuekin lehiatu behar baitute–, bi lehiaketa horiek –eta, zehazki, Julián Gayarre lehiaketak– ongi merezitako ospea zuten, epaimahai aditua eta antolakuntza ona izatean oinarrituta, bai eta horien kudeaketaz arduratu diren funtzionario bikainen lanean ere.

Egoera horrek 2012ra arte iraun zuen; izan ere, krisiaren ondorioz, departamentuak iragarri zuen bi lehiaketak txandaka egiten zirela hiru urteko ziklo baten barruan, zeinean sartuko baitzen aurreko lehiaketetako irabazleen eta finalisten emanaldiekin egindako jaialdi bat. Programazio horrekin bat, 2013an Julián Gayarre lehiaketa egin behar zen, eta 2014an, berriz, Pablo Sarasate lehiaketa.

2013ko martxoaren 2ko hedabide erregionalek ziotenez, Julián Gayarre Kantu Lehiaketa bertan behera gelditu da, aurrekontu faltagatik.

Informazio hori ikusita, hauxe jakin nahi dugu:

- Zeintzuk dira programa bertan behera uzteko arrazoiak?

- Nafarroako Gobernuaren ustez, ez al dago murrizteko beste kontusailik, programa bertan behera gelditzea ekiditeko?



• Nafarroako Gobernua jabetzen al da kalte beharbada leheneraezina pairatuko duela jarraitutasunik eta aldizkakotasunik ez duen lehiaketa baten ospeak?

Iruñean, 2013ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

---

## **Galdera, Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorearen eraikuntzari loturiko 2012ko kontusailei buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorearen eraikuntzari loturiko 2012ko kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako tartea eraikitzeari lotutako 2012ko kontusailei buruz:

1.- Kontusail horien betetze-maila 2012ko abenduaren 31n, kontusailerako hasiera batean aurreikusitako kontzeptuetan.

2.- Kontusailen guztizko betetze-maila, egindako aurrekontu-aldaketak justifikatzen dituzten arrazoiak zehaztuta.

3.- Kontusail horietan hasiera batean aurreikusitakoaren eta kontzeptu horiengatik egiaz bete denaren arteko aldea, halakorik bada, ekarri duten arrazoen justifikazioa eta azalpena.

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenera bideratutako 2012ko kontusailari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenera bideratutako 2012ko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du "Nafarroak Estatuari eginiko diru-ekarpenera" izeneko 2012ko kontusailari buruz:

1. Kontusailaren betetze-maila 2012ko abenduaren 31n, kontusailerako hasiera batean aurreikusitako kontzeptuan.

2. Kontusailaren guztizko betetze-maila, egindako aurrekontu-aldaketak justifikatzen dituzten arrazoiak zehaztuta.

3. Kontusail horretan hasiera batean aurreikusitakoaren eta kontzeptu horrengatik egiaz bete denaren arteko aldea, halakorik bada, ekarri duten arrazoen justifikazioa eta azalpena.

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Foru Administrazioiko goi karguen ordainsarien antzintasun sariaren gaineko galderaren erantzuneko 1. eta 2. ataletan aipatu zenbatekoen arteko kontraesanari buruzkoa.**

*ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Foru Administrazioiko goi karguen ordainsarien antzintasun sariaren gaineko galderaren erantzuneko 1. eta 2. ataletan aipatu zenbatekoen arteko kontraesanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentu-talde Popularrak galdera idatzi bat aurkeztu zuen (8-13/PES-00005), Foru Administra-

zioko goi karguen ordainsarien antzintasun saria-ri buruz.

Berriro ere egiten dugu galdera, ikusita kontra-esana dagoela otsailaren 25ean igorritako erantzunean, ez baitatoz bat erantzun horretako 1. eta 2. ataletan adierazitako zenbatekoak.

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

